

BIRGAITZE INTEGRATUAREN PLAN BEREZIA

B.I.A. - 136 MURRATEGIKO AREAREN B.I.P.B.-a

TESTU - ZIRRIBORROA

2018ko ABENDUA

EGILEA

ITSASO GOÑI

(C.S.C.A.E. nº 708895)

G.A.C. ARKITEKTURA BULEGOA

SUSTATZAILEA: EIBARKo UDALA

ÍNDICE MEMORIA

1.- SARRERA	4
1.1-PLAN BEREZIA BURUTZEAREN EKIMENA	
1.2- PLANAREN PREMIA ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA	
2- B.I.A. EREMUAREN MUGATZEA - B.I.P.B. EREMUA	6
3- BIRGAITZEA ETA ANTOLAMENDUA	7
3.1-BIRGAITZEA	
3.2-ANTOLAMENDUA	
4- ERAIKINEN ERREGIMENA	22
5- BANAKETA AREAK	26
6- KUDEAKETA	28
7- ORDENANTZA ETA ARAUDI URBANISTIKOA	30
7.1- OROKORTASUNAK	
7.2- LIZENTZIAK ETA AUREKO TXOSTENEN BEHARRA	
7.3- XEHETASUN AZTERKETAK	
7.4- URBANIZAZIO PROIEKTUAK	
7.5- LERROKATZE BALDINTZAK	
7.6- ERABILERA BAIMENDUAK	
7.7- ERAIKINEN BIZIGARRITASUNA	
7.8- ERAIKINEN KONTSERBAZIOA	
7.9- ERAIKINEN PROFILAK - IRUDIAK	
8- ESTUDIO EKONOMIKO ETA FINANTZIEROA (*)	37
8.1- ERAIKINEN BIRGAITZEA	
8.2- LURZORUAREN ESKURATZEA	
8.3- URBANIZAZIO HERRI-LANAK	
8.4- ETAPEN PLANA	
9- GENEROKO PERSPEKTIBAREN INTEGRAZIOA (*)	43
10- BIZTANLEGOAREN PARTE HARTZE PLANA (*)	44
ERANSKINA : ANALISI SOZIO-URBANISTIKOA	45

(*) Apartados a completar en consenso con los técnicos responsables del ayuntamiento.

ZIRRIBORROA

MEMORIA

1. SARRERA

1.1- PLAN BEREZIA BURUTZEAREN EKIMENA

Eibarko Udalak, 2/20026 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurraldearen eta Hirigintza Planaren 59. artikuluan ezarritako planen arabera, "Murrategi Areako Birgaitze Integratuaren Plan Berezia" lana burutu eta sustatu du.

Lehen fasean dagoen **zirriborro** honek, behin betiko Plan Berezian zehaztu nahi diren "Irizpide, Helburu eta Konponbide Orokorrak" definitzeko balioko du.

Beraz, Planaren behin betiko onarpenaren bideak eta epeak jarraitzeko, dagozkion "Hasierako Onespeneko Dokumentuak" aurkezteko bigarren fase bat egon beharko litzatekela deritzogu.

1.2- PLANAREN PREMIA ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA.

Murrategiko Arearen Hirigintza Fitxan adierazten den bezala auzoa birsortzeko hiri-baldintzak hobetu behar dira eta hori aurrera eramateko beharrezkoa da Plan Berezi bat idaztea. Horretarako hirigintza fitxan betebeharreko baldintzak zehaztugabeak zeudela eta antolamendu parametroak determinatu gabe zeudela kontutan hartuta, Murrategiko Areako Plan Berezi bat idazteko beharra dagoela argi dago.

Premia horri erantzunez, Eibarko Udalak Murrategiko Arearen **Ikerketa Sozio-Urbanistikoa** bat eskatu zuen auzoaren benetako egoera ezagutzeko. Horrela egiaztatzen du 2016ko azaroan aurkeztutako txosten batek (**1. eranskina**). Txosten horretan auzoaren egoera degradatua deskribatzen da eta birsortze baten beharra ondorioztatzen da.

Txosteneko amaierako ondorioetan auzoa Area Degradatu bezala definitzen da eta horrela deskribatuta agertzen da:

"Azterlanean ikusi dugunez, arloak eremu degradatu gisa definitzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen ditu:

- *Eremuaren biztanleen errenta mailak lurraldearen batez besteko errenta% 80 baino txikiagoa da.*
- *Eremuko biztanleen langabezi tasa Euskadiko Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa baino handiagoa da.*
- *Berrurbanizazio lanen zenbatekoa beraren balioaren% 40 gainditzen du.*
- *Eraikinen birgaitze lanen zenbatekoa beren balioaren% 25 gainditzen du. "*

Behin auzoaren ikerketa sozio-urbanistikoa eginda eta errealitatea hobeto ezagutuz, Eibarko Udalak eremua Area Degradatu bezala justifikatzeko lanetan hasten da, eremua Birgaitze Integratuko Area (BIA) posible deklaratzeko eta jarduketa Plan Berezia bideratzeko, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak agintzen duen bezala.

Guzti honegatik premia justifikatuta gelditzen da eta argi ikusten da Birgaitze Integratuaren Plan Berezia (BIPB) aurkeztearen egokitasuna birsortze Plan Berezi hau aurrera eramateko.

ZIRRIBORROA


2. B.I.A. EREMUAREN MUGATZEA – B.I.P.B EREMUA.

“Murrategiko Birgaitze Integratuko Arearen (BIA)” jarduketa eremua dagokion informazio grafikoan eta planoetan dago.

* BIA Eremuaren Mugatzea:

- Mugatutako azalera guztia:	8.985,60 m2. (8,98 hektarea)
- Eraikin nagusien kopurua:	6 komunitate etxebizitza-eraikin.
- Eraikinen kontserbazio egoera:	Erdipurdikoa/txarra
- Guztizko etxebizitza kopurua:	28
- Plan Orokorrak “Geroratutako ordenamenduz kanpokoak” bezala definitzen dituen eraikin kopurua:	6
- “Geroratutako ordenamenduz kanpoko” eraikinetan dauden etxebizitza kopurua:	28 (denak)

Hauetaz gain eremuak bestelako eraikin sekundarioak ditu bere baitan, Plan honetan aztertu behar direnak beren etorkizuna ezartzeko. Eraikin hauek gehienak etxebizitza eraikinei erantsiak daude edo modu isolatuan eta biltegiatze erabilerarekin.



3. BIRGAITZEA ETA ANTOLAMENDUA

OROKORTASUNAK: BIRGAITZE ETA ORDENAZIORAKO XEDEA ETA IRIZPIDEAK.

Dokumentu honen xedea "Murrategiko Birgaitze Integratuaren Plan Bereziaren" B.I.A. eremuko azterketa aurrera eramateko jarduketak **definitzea, ordenatzea eta programatzea** da.

Helburu nagusia zaharberritzea, babespena, kontserbazioa eta dagoen hiri-ehunduraren hobekuntza da, halaber, biztanleen bizi baldintzak hobetzeko jarduketak proposatzea, bai beren etxebizitzetan bai espazio irekien hornidura kopuru eta kalitatean, hala nola hirigintza eta ekipamenduetan.

Beraz helburuak bi atal nagusitan bereiz ditzakegu:

Ondare Urbanizatuaren hobekuntza

- Hiri-ehundura, espazio-irekien eta horniduren funtsezko hobekuntza.

Ondare Eraikiaren hobekuntza

- Eraikinen bizigarritasun baldintzak eta eraikuntza eta egitura baldintzen hobekuntza.

3.1- BIRGAITZEA

3.1.1.- **Abenduaren 30eko 317/2002 dekretuaren**, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoaren aplikazioa.

Abenduaren 30eko 317/2002 dekretuaren xedapenaren arabera, BPB (Birgaitze Plan Berezia) dokumentu honek bere limitearen barruan hartzen du BIA (Birgaitze Integratuko Area) eremu mugatua.

BIPBaren barruan mugatuak dauden eraikinak, Murrategiko BIAren irekitze espedienteko dokumentazioan, Onak, Erdipurdikoak, Txarrak edo Oso Txar moduan sailkatuak izan behar dira beren **eraikitze egoeraren** arabera.

Komunitate etxebizitza eraikinei dagokienez **Erdipurdiko egoeran** eta **Egoera txarrean** dauden eraikinak azalduko dira.

Halaber, etxebizitza eraikin guztiak bizigarritasun baldintza onak aurkeztu beharko lituzkete eraikitze garaian eta aurrekoa egia bada, beren bizigarritasun egoeraren arabera egoki bezala kalifikatuko lirateke.

Baina errealitatea bestelakoa da, izan ere, etxebizitza eraikin hauek 50eko hamarkadan eraiki ziren eta bizigarritasuna eta osasungarritasunaren balioak eztabaidagarriak dira gaur eguneko etxebizitza askotan. Zalantza hau areagotzen da etxebizitza hauei gaur egun betebeharreko bizigarritasun baldintzak eta aplikazio araudiak betetzea eskatzen badiegu. Beraz, garrantzizkoa da argitzea etxebizitzak bizigarritasunaren hobekuntza batera egokitzea beharrezkoa ikusten dugula eta horretarako **bizigarritasun egoera Txarra** dela esan behar dugu.

Eibarko Plan Orokorrak etxebizitza hauentzat **Geroratutako Ordenamenduz Kanpoko** erregimena ezartzen duenez, kontserbazio, apaindura, konponketa eta finkatze lanak bakarrik dira posible eta 317/2002 Dekretuko II eta III eranskinetako definizioak jarraituz.

Plan honen helburua, eremu osoaren birsortzearen baitan, etxebizitza eraikin hauek KONTSOLIDATZEAN datza.

Aurrekoaren arabera B.I.P.B. limitearen barruan, birgaitzerako laguntzak hartu ahal izango dituzte birgaitu behar diren etxebizitzetako jabeak, B.I.A. limitearen barruan.

BIPBaren BARRUAN BIRGAITZEKO ERAIKINEN LABURPEN TAULA

ETXEBIZITZA ERAIKINAREN IDENTIFIKAZIOA GAKO ALFANUMERIKOAREN ARABERA	ERAIKINAREN EGOERA
M 4	ERDIPURDIKO
M 6	TXARRA
M 8	ERDIPURDIKO
M 10	TXARRA
M 12	TXARRA
M 7	ERDIPURDIKO

BIRGAITZEKO GUZTIZKO ERAIKIN KOPURUA	6
---	----------

Laburpen taularen arabera BIPB limitearen barruan erdipurdiko bezala katalogatutako 3 eraikin daude eta beste 3 egoera txarrean daudenak. 6 eraikin hauek birgaitze laguntzak hartu ahal izango dituzte, beraz, nahiz eta laguntza aplikatzeko moduluaren pisan desberdintasunak egon (BIA eremutik kanpo edo barruan egotearen arabera), jabe guztiek eskatu ahal izango dituzte, bai Kudeaketa Sozietateari edo Udaletxeari, bai Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorrari.

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua jarraituz aipatutako eraikinen birgaitzea III eranskinean xedatutakoari "Eraikin batek egitura eta eraikuntzari dagokienez egoki izateko bete behar dituen baldintza orokorrak" eta IV eranskinean "Etxebizitzaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak" xedatutakoari men egin beharko dio.

Abenduaren 30eko 317/2002 dekretuaren III eta IV eranskinetan xedatutakoaren arabera obra horiek birgaitze laguntzak jasotzeko arrazoiak izan daitezke.

3.1.2.- Eraikuntzaren egoera

B.I.P.B.aren muga barruan dauden eraikinen egoera **erdipurdiko** eta **txar** bezala katalogatu dira.

Nahiz eta bestelako alderdietan egoera ona ageri, eraikuntzaren aldetik irregulartasunen bat aurkeztzen duten eraikinak Erdipurdiko bezala katalogatu dira, birgaitze obraren bat beharko bait dutelako.

Halaber, eraikuntzaren aldetik erdipurdiko eta egoera txarraren artean dauden eraikinak TXAR bezala katalogatu dira, birgaitze egoki bat errazteko helburuarekin. Izan ere, eraikinen utzikeria egoera nabarmena da, 50. hamarkadako eraikin zaharrak dira eta mantenimendu lanik ia ez dute izan.

A) Erdipurdiko egoeran dauden eraikinak

DESKRIPZIO OROKORRA

Horrela katalogatutako eraikinak itxurazko egitura sendoa daukate eta kalitate ertaineko materialek osatzen dituzte. Hurrengo ezaugarrietako bat edo gehiago aurkezten dute:

- Akatsak teilatuetan, hegaletan, erreten eta zorrotenetan (egiturari eragin gabe).
- Akatsak balkoi edo miradoreetan.
- Fatxadetako estalduretan akatsak, zarpiatzeetan arraildurak eta babes-pinturen falta.
- Kanpoko arotzerian akats txikiak edo aireztatze azaleraren handipena.
- Saneamendu, energia eta ur-instalakuntzen konpenketa beharra.

B) Egoera txarrean dauden eraikinak

DESKRIPZIO OROKORRA

Horrela katalogatutako eraikinak kontserbazio egoera urria dute eta hurrengo ezaugarrietako bi edo gehiago aurkezten dituzte:

- Begi bistako egiturazko-kalteak. (*)
 - * Agerikoak diren asentamendu eta arrailduradun karga hormak.
 - * Egoera txarrean dauden teilatuak, piezen falta edo akatsdunak eta materiale desberdinekin egindako partxeak.
 - * Estalkiaren egitura geziduna, deformazio nabarmenak eta ikusgaiak habe eta hegaletan.
 - * Solairuarteko forjatuetan flexioak, apurketa partzialak edo bibrazio nabarmenak sortutako deformazioak.
 - * Fatxadako eta eraikin barruko ate eta leihoetako baoetan deformazioak..
 - * Kalteak habe eta zutabetan.
 - * Xilofago, hezetasuna, etabarrengatik kalteturiko egitura atalak.
 - * Egituraren eskoramendu partziala.

(*) OHARRA:

Etxebizitza eraikin hauen antzintasun eta mantenimendu falta dela eta egiturazko kalteen agerpena aurre ikus daiteke eta, beraz, egituren egokitzapen obren beharra ezin da baztertu.

- Fatxaden estalduren egoera txarra, arraildurak, petatxoak eta zatien altxamenduak.
- Kanpoko arotzerien egoera txarra. Carpinterías de exteriores en mal estado.
- Barnealdeko hezetasunak estalki eta fatxaden iragazgaizte okerrengatik,
- Ur-horniketaren, saneamenduaren eta energia elektriko sarearen instalazio akastunak.

ENERGIA-ERAGINKORTASUN DESEGOKIA

Eraikin guztien energia-eraginkortasuna txarra dela esan dezakegu, hau da, alderdi denetan hobe daitekeena.

Eraikuntzaren antzintasuna dela eta, eraikin bat bera ere ez du betetzen gaur eguneko Eraikuntza Kode Teknikoa. Horregatik ezinbestekoa da hobekuntza energetikoa eta ondorioz, eraikinen birgaitze energetiko bat.

IRISGARRITASUN OKERRA

Aipagarriak dira eremuko eraikin guztietan irisgarritasun egoki baterako existitzen diren zailtasunak, bai eraikinetatik kanpo bai barruan, non arkitektura oztopoak etengabe agertzen diren. Ondorioz irisgarritasunaren irizpidetik beharrezkoa da birgaitze bat eremu denean.

3.1.3.- Eraikinen Egitura eta Eraikuntza Egokitzapenerako Birgaitze Obrak

Eraikinaren egoeraren arabera, egin beharko liratekeen birgaitze obra esanguratsuenak honakoak dira:

A) **Egoera txarrean** katalogatutako eraikinen birgaitze obrak:

- Baieztatuko balitz, zimendatzeen lurreztatzea.
- Fatxadako hormetako arrailduren konponketa.
- Fatxadetako baoen gaineko habeen konponketa edo ordezkapena.
- Hegal eta estalkien egituraren konponketa edo ordezkapena. Iragazgaizte berria eta teilaberritzea.
- Euri-urak jasotzeko erreten eta zorrotenak ezartzea, objektu arrotzak kentzea..
- Forjatuen konponketa partziala, hezetasunak edo xilofagoek kaltetutako habe eta zutabeak, hormigoia kalteak eragiten dizkieten bestelako patologiak.
- Sarbide eskaileren konponketa.
- Sukalde eta komunetako instalakuntza sareen konponketa edo ordezkapena.
- Sare energetikoen egokitzapena tentsio baxuko araudira.
- Balkoi eta miradoreen edo fatxadetako arotzeriaren ordezkapen partziala edo guztizkoa, aireztatze azaleraren handipena.
- Fatxadako estalduren egokitzapena, konponketa osoa edo partzialaren bidez.

B) **Erdipurdiko egoeran** katalogatutako eraikinen birgaitze obrak

- Teilaberritze osoa edo partziala, terrazen iragazgaiztea, euri-urak jasotzeko erreten eta zorroten ordezkapen osoa edo partziala.
- Balkoi eta miradoreen ordezkapen osoa edo partziala.
- Kanpoko arotzeren, fatxadetako pinturen eta fatxaden estalduren konponketak.
- Ur, saneamendu eta energia sareen egokitzapena.

Halaber, aipatutako eraikinen antzintasunagatik, fatxada eta estalkien mantenimendurako obrak aurreikusi beharko dira.

Fatxadetako eraikuntza soluzioak ikusita eta kalefakzioa eta ur beroarentzat dauden instalazioak ikusita, ezin da baztertu efizientzia energetikoaren egokitzapenerako obren beharra.

3.1.4.- Komunitate konponketak-Banakako konponketak

Egoera txarrean edo erdipurdiko egoeran sailkatutako eraikinetako obrak modu komunitarioan edo banaka egin ahal izango dira, hurrengo kontsiderazioak kontutan hartuz:

Konponketa komunitarioak:

Fatxada, estalki eta sare-nagusietako egitura-elementuen (zutabe, habe, forjatu, karga-horma, zimendatze eta zinbriak) konponketa edo ordezkapenak beharrezkoak direnean komunitateko jabeek egin beharreko obrei esaten zaie Konponketa Komunitarioak.

Banakako konponketak:

Banakako obrak etxebizitzaedo lokalen jabeek modu indibidualean egin ditzaketen obrak dira, beste jabeen etxebizitza edo lokaletan kalterik sortu gabe hurrengo kasuetan: beti ere ez badira beste jabeen etxebizitza edo lokalak inolako moduan kaltetuta ikusten.

- Energia-elektriakoaren sarearen ordezkapena eta tentsio baxuko araudira egokitzea.
- Sukalde eta komunaren ordezkapena, hauek dakarten zolatu eta alikatatuaren ordezkapenarekin.
- Ur eta saneamendu instalazioen konponketa eta etxebizitza edo local bakoitzaren barneko konponketa.

3.1.5.- Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren III. eranskina

ERAIKIN BATEK EGITURA ETA ERAIKUNTZARI DAGOKIENEZ EGOKI IZATEKO BETE BEHAR DITUEN BALDINTZA OROKORRAK

Baldintza orokorrak:

1. Egitura eta eraikuntza elementuen sendotasun eta segurtasunaren ingurukoak:
 - Behar bezalako zimenduak izatea.
 - Egitura-elementuetako materiala ez egotea zaharkituta eta horien erresistentzia ez dela gutxitu bermatzea.
 - Sostengu-elementuetan aldarotzerik ez izatea.
 - Habe eta forjatuek gezirik ez izatea.
 - Eraikinaren hegalkin-zatiak osatzen dituzten elementuak askatzen direnerako segurtasun bermea.
 - Erortzeetarako segurtasun-elementuei eusteko eta horiek amarratzeko bermeak.
 - Eraikinaren beste elementu batzuk -teinak, fatxadako plakadurak, tximiniak, isurkiak, ateburuak eta kristalak- askatzen direnerako segurtasun-bermeak.
2. Sarbideen ingurukoak:
 - Bide edo espazio publikotik sartzeko bide independentea.
 - Etxebizitzetara sartzeko inolako trabarik ez izatea.
3. Uraren eta hezetasunaren estankotasunaren ingurukoak:
 - Itoginik ez izatea.
 - Estalkia osatzen duten elementuen zuzentasuna.
 - Estalkian elementu arrotzik ez izatea.
 - Fatxadetan hezetasunik ez izatea.
 - Zolata, horma eta bestelako elementuetan hezetasunik ez izatea.

4. Instalazioen egoera onaren ingurukoak:
 - Instalazioen estankotasuna eta funtzionalitatea.
 - Hormetako eta tutuetako instalazio elektriko orokorra.

EGITURAREN ETA ERAIKUNTZAREN EGOKITZAPENERA DARAMATEN OBRAK.

1. Egitura eta eraikuntza elementuen segurtasun eta sendotasunari dagokionez:

- Zimenduen lurreztatzea.
- Egitura errefortzuak (zutabeak, habeak, forjatuak, estalkiaren eraikitzea)
- Egitura elementuen suarekiko babespena.
- Mehelin eta fatxaden finkatzea.
- Balkoi, hegala eta erlaitzak bezelako elementu hegaldunen errefortzua.
- Eskaileren errefortzua
- Teilak, fatxadetako aplakatuak, tximiniak, ateburuak, kristalak eta leiho-isurkiak bezelako beste elementuak.

2. Irisgarritasunari dagokionez:

Aurreratu denez, eraikuntzetan eta eremu urbanoan agertzen diren oztopo-arkitektonikoen agerpena konstantea da. Horrela, mailen arteko desberdintasunak sarbide eskailerekin konpontzen dira eta ez malda irisgarrien bidez.

Beraz, Plan Berezi honek **eraikinen irisgarritasuna bermatzeko eremuko birgaitze obra guztien burutzearen beharra aurreikusten du.**

3. Euri eta hezetasunarekiko iragazgaiztasunari dagokionez:

- Estalkiko landarediaren garbiketa.
- Teilaberritze-lanak.
- Fatxadako gainbegiratua eta, badagokio, iragazgaiztea.
- Kanpoko arotzeriaren gainbegiratua eta, badagokio, birjartzea.
- Zolata, horma eta eraikuntza elementuen iragazgaiztea.
- Leiho-isurkien eta ateburuaren gainbegiratua.
- Kristalen birjartzea.
- Junturen itxiera.
- Kondentsazioak kentzea.

4. Instalazioen egokitzapen eta berritzeari dagokionez:

- Instalazioen gainbegiratua eta, badagokio, berriak jartzea.
- Hartune elektrikoaren eta kontadore sistemen egokitzapena, hala nola, diferentzialen instalakuntza eta paretan sartutako kable-hodien gainbegiratua eta, badagokio, berriak jartzea.

5. Energia-eraginkortasunaren egokitzapen edo hobetzeari dagokionez:

Nahiz eta 317/2002 Dekretuaren III. eranskinean aipamenik ez den egiten, beharrezkoa ikusten dugu energia-eraginkortasunaren egokitzapen obrak puntu honetan adieraztea.

- Berogailu eta ur bero sanitarioaren instalakuntzen mantenimendua edo/eta berritzea.
- Eraginkortasun-energetiko altuagoko berogailu eta ur sanitarioa berotzeko sistemen ordezkapena.
- Eraikinen isolamenduaren azterketa eta proiektzioa, estalki, fatxada eta lurzoruarekin kontaktuan dauden zoruetan.
- Kanpo Isolamendu Termikorako Sistemen antzeko proiektuen bidezko azterketa.

3.1.6.- Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. eranskina

Esan denez, aztergai diren etxebizitza eraikinak gaur egun EZ dira guztiz egokitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintza galdagarrietara. Beraz beharrezkoa izango da eraikinen doikuntza, dagokion atalean, ondoren zerrendatzen diren eta betebeharrekoak diren gutxieneko baldintzetara:

ETXEBIZITZEN GUTXIENKO BIZIGARRITASUN -BALDINTZAK.

Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak:

1. Etxebizitzak gutxienez bizitzeko egoki diren bi espazio berezi izatea. Horiek sukaldea, jangela, egongela, bi oheko logela eta komuna hartuko dituzte barne. Ezin izango dira espazio berean jarri sukaldeari eta logelari dagozkien areak.
2. Gelak elkarren artean bereizi egin beharko dira. Gela horiek ezin izango dute igarobidetzat izan logelaren bat eta, halaber, logela bat ezin izango da izan komunerako pasabide. Logela bakarra denean komuna horri erantsitakoa izan liteke.
3. Bizitzeko egokiak diren espazioek (komun, sukalde eta despentsak izan ezik) zuzenean kalera jotzen duten kristalezko irekiuneak izango dituzte. Arkitekturari dagokionez hori lortzea ezinezkoa denean, espazio horietako bat argia duen beste baten bidez edo eskailera-begiaren bidez argitzea ahalbidetuko da, betiere horri nahikoa argi iristen zaionean zenitalki edo galeria edo antzeko beste espazioaren baten bidez. Zuloen azalera ez da inoiz izango berorien bidez argitzen den guztizko azaleraren 100eko 10 baino txikiagoa, eskaileraren kaxaren bidez argitzen den kasuan izan ezik. Kasu horretan aipatutako balioen erdia izan daiteke.
4. Espazio guztiek kanpoko zuzeneko aireztapena izatea (komun eta despentsetara bideratutakoak izan ezik) argitzeko azalera guztizko azaleraren 1/3 denean. 3. idatz-zatian adierazitakoak onartzen dira kasu honetan ere. Zuzenean aireztatzen ez diren komunak ezin izango dira beste logela baten bidez aireztatu. Horrelakoetan airea berritzea eta garbitzea ahalbidetuko duen aireztatze-sistema behartu bat jarri beharko da. Sukaldeak beti izan beharko du erauzle behartu independentea, sukaldean sortzen diren uraren lurrina, gasak eta kea erauztea ahalbidetuko duena.
5. Patioek bizitzeko egoki diren espazioak argitzea eta aireztatzea eta eraiki berriak edo berritutakoak izatea. Horiek gutxienez zazpi metro koadroko azalera izatea eta zuzeneko argia bi metrokoa izatea gutxienez. Patioa lehendik dagoenean eta hori berritzen ez denean, dituen dimentsioei eutsi ahal izango zaie.
6. Etxebizitzaren azalera erabilgarria ez izatea 37 metro koadro baino txikiagokoa. Espazioek gutxieneko azalera hauek izango dituzte:

Sukaldea	5 m ²
Sukaldea-jangela	8 m ²
Egongela	10 m ²
Logela nagusia	10 m ²
Bi oheko logela	8 m ²
Ohe bateko logela	6 m ²
Komuna	1,5 m ²

Etxebizitza guztiek izan beharko dituzte gutxienez logela nagusi bat, egongela, sukaldea eta komuna. Sukalde, egongela eta jangelarekin bat egitea erabakitzen denean guztizko azalera 18 m² erabilgarrikoa izango da gutxienez.

7. Egitura-segurtasun ona duen eraikineko etxebizitza guztietan dauden altuerari eutsi ahal izango zaie, 2,20 metrokoak edo gehiagokoak direnean. Ganbarak diren tokietan, ez dira joko metro koadro erabilgarritzat 1,50 metro baino gutxiagoko altuera librearen dutenak. Gainera, horien bolumena azalera bereko eta 2,20 metroko altuerako logela bati dagokiona baino handiagoa izango da.
8. Beheko solairuan etxebizitzaren bat dagoenean, isolamendu termikoa eta inpermeabilizazioa bermatu beharko dira, material hidrofugo eta isolatzaile egokiak bidez.
9. Ur beltzak estolderia-sare orokorrera isurtzea, tutu iragazgaitzen eta aireztatuen bidez. Horrelako sarrerik ez dagoenean, ur korranteetara isuri baino lehen edo lurrari eman baino lehen likidua araztea ahalbidetuko duten hobi septiko egokiak erabiliko dira.
10. Komunak komuna bera, konketa eta dutxa izatea gutxienez.
11. Etxebizitzako instalazio elektrikoak Behe Tentsioko Erregelamendua betetzea.
12. Etxebizitzak berokuntza-instalazioa edukitzea.

ETXEBIZITZEN BIZIGARRITASUN-BALDINTZEN EGOKITZAPENERA DARAMATEN OBRAK.

- Etxebizitza barruko birbanaketa.
- Etxebizitzaren egokitzapen obrek ekarritako iturgintza eta saneamendu barne-instalakuntza berriak jartzea.
- Tentsio baxuko araudiaren arabeko elektrizitate barne-instalakuntzak.
- Gutxienezko bizigarritasun-baldintzak betetzeko isolamendu termiko eta akustikoa.
- Sukalde, komun eta bainugeletako aireztapen derrigortua.
- Argiztapen naturala.
- Berezko aireztapena.
- Sukaldeko oinarritzako instalazioak.
- Aurreko jarduketaren ondorioz burutu beharreko akabera obrak (zarpeatuak, alikatatuak, arotzeriak, pinturak, zolatuak).

Aipatutako obretaz gain, indarreko plangintzan adierazten diren bizigarritasun-baldintzak lortzeko beharrezkoak diren obrak ere etxebizitza bateko bizigarritasun-baldintzetarako egokitzapen obrak bezela kontsideratuko dira.

3.2- ORDENAMENDUA

3.2.1.- Bide-sarea: Galtzada eta Aparkalekuak.

Gaur egungo sarearen hobekuntza

Ordenamenduak Murrategi Kaleko adarkadurak birgaitzearen beharra jasotzen du, gaur egun oso kaltetuta egoteagatik.

*** Murrategi Kalea**

Inguruko herriekikn daukan komunikazioaren ikuspegitik Murrategi kokapen estrategiko batean dagoela esan dezakegu; Eibarko hasieran dago, A8 autobidearen sarreratik eta N634 errepide nazionaletik metro gutxi batzuetara. Hala ere, kokapen deszentralizatu horrek Eibarko zentruarekin komunikazioa zailtzen du, 2 kilometrotara bait dago hiriaren erdigunea (Unzaga plaza).

Murrategiko auzoak Azitaingo auzoarekin konektatzen duen sarbide bakarra dauka. Murrategi kalea itsua da bere bi adarkaduren muturretan, adarkadura nagusia Murrategi kalea "Trust Eibarrés S.A." enpresaren partzelan amaitzen da eta adarkadura sekundarioa kaleko 12. zenbakidun eraikinean amaitzen da.

Gaur egun BIPB eremuan dagoen bide-sareak **1093,26 m²ko galtzada azalera** dauka.

Auzorako sarbidea ez dago ikusgai errepide nagusi eta ibilbide erabilienetatik, Azitain Bide kalearen amaieran ezkutatuta gelditzen delako eta ez dagoelako seinalaztapenik.

Zentzu honetan Udal Plangintzan aurreikusten den hobekuntza bakarra Azitain Bidetik sarbide berri bat proiektatzea da, baina jarduketa hau BIPB eremutik kanpo gelditzen da.

Sarbide berriak

Eibarko Hirigintza Plangintza Orokorak Murrategirako sarbidea Azitain Bidetik aldatu eta hobetzea aurreikusten du. Proposamen berria AZITAINBIDE 2B AI140.01 fitxa urbanistikoa jasota dago.

Nahiz eta Plangintzak aurreikusten duen Azitain Bideko sarbidea Murrategiko eremutik kanpo gelditzen den, Murrategiko bide-sarean eragin zuzena dauka. Horregatik ezinbestekoa da gai hau kontsideratzea, izan ere Murrategi kalea "Trust Eibarrés S.A." enpresako ibilgailu industrialen sarrera eta irteera bideak dira. Dena den sarbide berri hau oraindik ez du onartu Eibarko Udalak.

Ordenazioak Murrategiko eremurako eta auzo osorako sarbideen hobekuntzaren beharra jasotzen du.

Murrategi kalea gaizki seinalizatua eta estuegia izateaz gain, sarbidea Azitaingo zubitik oso estua da (3,10 metro):

- Murrategi kaleko adarkadura nagusia ("Trust Eibarrés S.A."): zabalera 4,50 metro.
- Murrategi kaleko adarkadura sekundarioa (12. zenbakiko eraikina): zabalera 2,30 metro.

Murrategirako sarbide zubiaren zabaleraren hobekuntza

Gaur egun Murrategi auzorako Azitaingo sarbide zubiaren zabalera 3,10 metrokoa da eta trafikoa bi noranzkoetan zailtzen du. Actualmente al barrio de Murrategi.

Eibarko Hirigintza Plangintza Orokorrak Murrategirako sarbidea Azitaineko zubitik aldatu eta hobetzea aurreikusten du, zubiaren zabalera handituz trafikoa eta oinezkoen ibilbidea errazteko.

Aurreikusitako jarduketa Plan honen jarduketa eremutik kanpo gelditu arren, Murrategin eduki dezakeen eragina zuzena da eta mesede egin diezaioke. Proposamen berria AZITAINBIDE 2B AI140.01 fitxa urbanistikoan jasota dago.

Dena den, Azitain-Murrategi auzoko sarbide berria bezala, zubiaren hobekuntzaren proposamena oraindik ez dago onartua Eibarko Udalarengatik eta, momentuz ez da jarduketarik aurreikusten.

Gaur eguneko bide-sareen hobekuntza

Murrategiko auzoak duen bide-sarea Murrategi kalearen bi adarkaduretara murrizten da. Adarkadura nagusian Murrategi kalea "Trust Eibarrés S.A." enpresaren partzelan amaitzen da eta adarkadura sekundarioa kaleko 12. zenbakidun eraikinean amaitzen da.

Gaur egun bide-sare honetako gune askotan galtzada zahartuta eta kaltetuta agertzen da aipatutako bi adarkaduretan. Ibilgailuen bidearen izaera azaleko akabera asfaltikoa da.

Bide-sareen hobekuntzaren helburua pertsonentzako bide erakargarriago bat lortzea da. Horregatik **galtzada osoaren gainazala birgaitzearen beharra zehaztatzen da**, imprimatutako hormigoi geruza baten bidez. Zehaztapen hau espaloien zabalera handitzearen edo hauen jarraitasuna bermatzearen ezintasunak justifikatzen du, izan ere ibilgailuen bidearen zabalera erabilgarriak ez du baimentzen espaloien zabalerak handitzea.

Aparkalekuak

Gaur egun Murrategiko azaleran 11 aparkaleku publiko daude, auzoaren hasieran eta autobidearen azpian kokatuak. Aparkalekuen eta urrutien dagoen eraikinaren arteko (kaleko 12. zenbakia) distantzia maximoa 100 metrokoa da, maila desberdinetara igarotzeko hainbat eskailera daudelarik ibilbide honetan.

Murrategi kalea ibilgailuen trafikorako prestatuta egon arren bidearen zabalerak ez du errazten alboetan ibilgailuak aparkatzea kale nagusian, zer esanik ez adarkadura sekundarioan, non alboetan aparkatzea ezinezkoa den.

BIPB eremuan dagoen aparkaleku publikorako azalera **162,26 m²**koa da.

Plangintzak ez duenez ezartzen bide-sareen aldaketak aztergai dugun eremuan, ez du zehazten azalerako aparkaleku publikoen eraikuntzarik. Beraz, BIPB eremuko etxebizitza kopurua kontutan hartuta, ez da aparkaleku publiko gabeziarik zehazten.

Hala ere, Plan Berezi honek dotazio publikoetarako partzela bat eskuratzeko aukera jasotzen du, azalerako aparkaleku publiko berrien sorburu izan daitekena. Erabilera publiko honen proiektzioa komenigarria litzateke hurrengo puntuan parke eta lorategietara bideratutako espazio librean hedapena jasotzen bait da.

Beraz, bai ibilgailuekin etxebizitzetara iristeko zailtasunagatik baita parke eta lorategietara bideratutako espazio libreak hedatzeko ekimenagatik, aparkalekuei dagokienez azalera taula berri bat ezartzen da.

Aparkaleku publikoa handitzeko katastroko **4482026 zenbakidun partzelaren eskurapen** jarduketa burutzea zehazten da. Horretarako jabeari aurretik eskatu behar zaio partzela horretan dagoen eraikinaren demolizioa.

Partzela horren eskurapenaren jarduketa dokumentu honen 6. atalean "Gestioa", zehazten da, Isolatutako Jarduketa Publikoen deritzon azpititulan.

MURRATEGIKO B.I.P.B. EREMUA- APARKALEKU PUBLIKOAK			
APARKALEKUAK MURRATEGI KALEAN	ERAIKITUTAKO AZALERA	AZALERA BERRIA	APARKALEKU PUBLIKOKO GUZTIZKO AZALERA
	162,26 m ²	296,22 m ²	458,48 m ²

Bai dauden aparkaleku publikoak bai eraikitzen diren berriak titulartasun publikoko lurzoruaren azpian eraikiko dira eta ez dira eremuan dauden etxebizitza edo lokaletara lotuta egongo.

3.2.2.- Espazio libreak: Oinezkoentzako eremuak, parkeak eta lorategiak

Murrategiko BIPB eremuak lurzoruaren okupazioa oso baxua dauka: lurzoruaren %12,25a okupatuta dago eta %87,75a librea. Murrategiko B.I.P.B. eremuan dauden **espazio libreen azalera 7.884,16 m²koa** da. Lurzoru librearen barruan jabego pribatua eta publikoa nola banatzen diren hurrengo taulan adierazten da:

MURRATEGIKO B.I.P.B. EREMUA – ESPAZIO LIBRE PUBLIKO ETA PRIBATUA					
MURRATEGIKO B.I.P.B. EREMUAREN AZALERA			8.985,60 m ²	Portzentaia	
LURZORU OKUPATUA	ERAIKINEK OKUPATUTAKO AZALERA		1.101,44 m ²	12,25 %	
ESPAZIO LIBREAK	AZALERA PRIBATUA	5.342,02 m ²	7.884,16 m ²	59,45 %	87,75 %
	AZALERA PUBLIKOA	2.542,14 m ²		28,30 %	

Espazio libreen azalera honetatik publikoaren portzentaia oso baxua da pribatuarekin alderatuz. **Aurrekoa kontutan hartuz, Plan Berezi honetan espazio libre publiko, lorategi eta parke moduko erabilera duten dotazio publikoetarako, partzela pribatuen eskurapena burutzea zehazten da.**

Murrategiko eremuko espazio libre publikoa gaur egun errepideek, aparkalekuek eta ionezko eremuek osatzen dute. Hau da, ionezko eremuak, epaloiek eta hiri-eskailerek osatzen dute eta guzti hauek aipaturiko errepide eta aparkalekuekin batera espazio libre publiko osoaren azalera gehiena osatzen dute. Baina badira beste azalera batzu espazio libre publikoak direnak, hauek aldiz, entitate gutxikoak dira, ez dira parke edo lorategiak eta batzuetan gainera abandonatuak edo eta hondar-gune utziak dira.

Hurrengo taulan espazio libre publikoak diren azalera guztiak zehazten dira.

B.I.P.B-arenMURRATEGI EREMUA – ESPAZIO LIBRE PUBLIKOEN AZALERAK		
Errepideak	1.093,26 m ²	43,00
Aparkalekuak	162,26 m ²	6,38
Guztira	1.255,52 m²	49,38
Espaloiak	188,37 m ²	7,41
Hiri eskailerrak	67,02 m ²	2,64
Espazio Libre Publiko Abandonatuak	503,37 m ²	19,80
Hondar-Espazio Libre Publikoak	527,86 m ²	20,77
Guztira	1.286,62 m²	50,62
GUZTIRA	2.542,14 m²	Ehuneko (%)

Datu hauek oso aldekoak dira Plan Nagusian Espazio Libreen Sistema Orokorrean lortu nahi diren emaitza estandarrei begira, non 5m²-ko azalera lortu nahi den bizniale bakoitzarentzat. Baina hau lortzeko Plan Berezi honetan pribatua den lurzorua eskuratu beharko da hain zuzen espazio libre publikoaren azalera haunditzeko eta bera emaitza estandarrei erantzuteko

Beraz, Plan Berezi honek, alde batetik, abandonaturik edo eta hondar-espazioak diren egungo espazio libre publikoak birgaitzea eta bermatzeko beharra finkatzen du, eta bestetik, pribatuak diren lurzorua eskuratzeko beharra ere zehazten du, esan bezala, espazio libre publikoaren azalera haunditzeko eta bide batez, eskuraturiko espazio hauei parke edo lorategi erabilera berriak eskeintzeko.

Hori dela eta, Plan Berezi honekin, egungo hondar-espazio libre publikoak diren lurren garbiketa eta leheneratzea derrigortzen da, eta baita abandonaturiko beste lurren birgaitzea ere.

Gainera, espazio libre pribatuaren lagapen minimoa aurreikusten da, etorkizunean ustez gerta daitezkeen oinezkoen eremu berrien antolakuntza bermatzeko.

ESPAZIO LIBRE PUBLIKOEN LEHENERATZEA DARAMATEN LANAK

Oinezkoen Eremua

Gaur egun Murrategiko eremuak ez ditu oinezkoen eremu egokirik aurkezten.

Egungo oinezkoen eremuak espaloi ez jarraiek osatzen dute, eta baita, hainbat hiri-eskailerekin ere. Hiri-eskailera hauek etxebizitza eraikin ezberdinetara iristeko baliagarri dira bainan eremuaren irisgarritasun txarraren adierazgarri dira.

Gainera ezinezkoa suertatzen da espaloi gehiago eraikitzea izan ere errepideak hain dira estuak zein ezin bait daiteke errepide hauen alboetan espaloi berriak eraiki, eta ondorioz, gaur egungo espaloiei ezin zaie jarraipenik eman.

Hori dela eta, Plan Berezi honek errepidearen azalera birgaitzea aurreikusten du. Eta horretarako urbanizazio berri bat zehazten du errepideei azalera berria eraikiz, hau da, errepideetan hormigoi inprimatuzko azalera berria (edo antzerako materialez osatua) eraikitzea aurreikusten da, eremuari beste ikuspuntu aberatsagao eskeiniz eta oinezkoentzako eremu atseginagoa sortuz.

Horretarako Plan Berezi honek Xehetasun Azterketa bat beharra derrigortzen du, zeinak urbanizazio berri honen zehaztasunak bilduko dituen.

Xehetasun Azterketa horretan, errepide azalera berriaren materialeen zehaztasunak eta eremua berrituko duten hiri-altzarien inguruko zehaztasunak bilduko dira. Azterketa honek ere, eremuaren argitasuna bermatzeko farolak non kokatuko diren ere zehaztuko du, eta bide batez, farolentzako beharrezko diren argi indar lerroen sarearen zehaztasunak ere.

Parkeak / Lorategiak

Gaur egun Plan Berezi honen eremuan ez dago ez parkerik ezta lorategirik ere, ez bait daude parke edo lorategi baldintzetara egokitzen den lurzorurik. Izan ere espazio libre publiko hutsak edo abandonaturik edo hondar-espazioak bait dira.

Plan Berezi honen aukera nagusia, espazio libre publiko abandonatu hauen leheneratzea eta birgaitzea da.

Beraz, Plan Berezi honek espazio libre publiko abandonatu hauen leheneratzea eta birgaitzea derrigortzen du, eta nolabait parke edo eta lorategi baldintzetara egokitzea eskatzen du. Eta horretarako espazio guzti hauen planifikatzeko **Xehetasun Azterketa** lana finkatzea eskatzen du, parke edo eta lorategi hauek planifikatzeko.

Gainera, Plan Berezi honek, partzela berriak eskuratzea aurreikusten du, eremuari espazio libre publikorako azalera berriak dohaintzeko.

Udaletxeak eskuratu nahiko lituzkeen partzelak, eta beraz, aprobeixamendurako izango diren lurra ondorengo taulan zerrendatzen dira.

APROBETXAMENDURAKO LURRAL – UDAL-ESKURAPENA		
PARTZELA PRIBATUA KATASTROKO ZENBAKIA	AZALERA (m ²)	EGUNGO EGOERA
4482047	2.118,97	ORUBE ABANDONATUA ERAITSI BEHARREKO ERAIKIN ABANDONATUAK DITU
4482026	296,22	ORUBEA ETA BILTEGIRAKO ERAIKINA
4482060	395,09	ERAIKINIK GABEKO ORUBEA GAUR EGUN BARATZAK DITU

Orube eta partzela hauek eskuratzearen posibilitatea aztertzea derrigortzen da eta ondoren Xehetasun Azterketa planifikatzea ere, honela, espazio libre publiko berriak proiektatuz.

Horretaz gain, **hondar-espazio libre publikoen garbiketa sakona** egitea derrigortzen da, espazio hauetan dagokien osasungarritasuna berreskuratzeko.

3.2.3.- Ekipamenduetara zuzenduriko eraikinak

Zoritxarrez Murrategiko eremuak ez ditu ekipamenduetara zuzenduriko eraikinik aurkezten. Izan ere hiriaren ekipamendu gehienak hiri barnean edo zentruan aurkitzen bait dira. Beraz esan dezakegu Murrategi auzoak ekipamenduen inguruan, eta baita veste zerbitzu publikoen inguruan ere, gabetasun haundiak dituela.

Hala ere aipamen egin daiteke: Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak, Azitain eta Murrategi auzoetarako zentru zibiko bat eraikitzeko asmoa erakutsi du, baina tames gaur egun eraikuntza horren inguruan ez da inongo aurrerapenik ikusten.

Beraz, alde horretatik, Plan Berezi honetan esan daitekeen bakarra da interesgarria izango litzatekeela udaletxearen partetik ustezko ekipamendu berri horren azterketa berreskuratzea, izan ere, ekipamendu horrek bi auzoei egingo bait lioke mesede.

Gaineratu daiteke, Plan Berezi honen onarpena bideratzeko prozesuan egingo den biztanlegoaren partehartze planaren barnean galdeketa egin dakiokegula bizilagunei, ustezko ekipamendu berriaren inguruan, hala nola, ze motako ekipamendua gustoko luketen eta non gustoko luketen jartzea alegia.

4. ERAIKINEN ERREGIMENA

Murrategiko B.I.P.B.-aren eremuarentzat zehaztutako ordenazioak, espazio libre publikoaren azalera haundiagoa lortzeko bigarren mailako zenbait eraikinen eraispena aurreikusten du. Honek gainera bide sarea eraberrituko duelarik.

4.1- ERAIKINEN ERREGIMEN MOTAK

Orokorrean Plan Bereziak 4 egoera ezberdin finkatu ditzakete mugatutako eremuaren barnean dauden eraikinentzat, eta noski, hiri plangintzarekin bat datozelarik. Aipaturiko lau egoera posibleak honakoak lirateke:

- * "Berariazko Antolamenduz kanpokoak" eraikinak
- * "Gerorako utzitako antolamenduz kanpokoak" eraikinak
- * "Egoera onargarrian" dauden eraikinak.
- * "Bermaturiko" edo antolamendu barnean dauden eraikinak.

Gure kasuan, Eibarko Hiri Plangintza Orokorrek eremuko eraikin guztientzako egoera mota berdina finkatzen du, hala nola, eremuko eraikin guztiak "Gerorako utzitako antolamenduz kanpoko" eraikin-egoeran aurkitzen dira.

Egoera honetan aurkitzen diren eraikinak irudikapen dokuimnetuetan eta beraz dagokion planoetan zehazten dira.

Eraikin erregimen hau Murrategiko B.I.P.B.-aren eremuko eraikin guztiei aplikatzekoa da.

4.2- GERORAKO UTZITAKO ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK

4.2.1.- Definizioa (Eibarko H.A.P.N-aren 2.3.03.02.01 Artikuluaren arabera)

“Gerorako utzitako Antolamenduz kanpoko egoeran sartzen dira, aurreko atalean aurreikusitako berariazko antolamenduz kanpoko egoeran ez daudelarik, ondorengo kasu hauetakoren batean aurkitzen diren eraikin, erabilera eta instalazioak:

- a) “*Eraikuntzaren erregimeneko III. Liburukiko Planoetan*” berariaz grafiatuak agertzen direnak eta “4. TITULUA.- 4.3.01.08. Artikulua.- Aldi baterako arauak” atalean lurzoru urbanizaezin gisa zehaztutakoetan kokatuak.
- b) Antolamendu Berezi baterako utzitako Eremuetan kokatuak, berorietarako ezartzen diren aldi baterako xedapenak baztertu gabe. Eraikin eta instalazio horiek antolamenduz kanpoko kategoria honetan sartzea aldi baterakoa da, harik eta Plan Nagusiaren garapeneko Plan Bereziek berorien behin betiko egoera erabakitzen ez duten arte.
- c) Xehetasun Azterketaren xede izan behar ez duten egikaritza unitateen barruan kokatutako eraikinak, Planak ezarritakoarekin bat ez datorren antolamendua dutenean. Eraikin horiek antolamenduz kanpoko kategoria honetan sartzeko aldi baterakoa da, dagozkien Hainbanatze Proiektuak behin betiko onartzen diren arte.

Eraikinaren zati edo elementuren bat baizik ez bada gerorako utzitako antolamenduz kanpoko egoeran aurkitzen dena, teknikoki eraikinaren gainerako partetik bereizi daitekeelako, antolamenduz kanpoko erregimena esandako zati edo elementuei soilik aplikatu ahal izango zaie, eta ez eraikinaren gainerako parteari.

Gerorako utzitako antolamenduz kanpoko egoera ezin izango zaie Planak cultura intereseko ondasunen Babes erregimenean sartzen dituen eraikinei aplikatu, kasu horretan eraikina antolamenduari bat datorrela ulertuko baita; ez ordea jatorrizko erakinarenak ez diren eta babestea merezi ez duten elementuei, eta horiei aplikatu ahal izango zaie gerorako utzitako antolamenduz kanpoko egoera.

Eraikin bat Gerorako utzitako Antolamenduz kanpoko egoeran kalifikatzeak ez du eragozten onartzen diren lanak egiteko erakundeetatik etor litezkeen diru laguntzak ematea, zeinak xeheki jasoak baitaude “2.3.03.02.02. Artikulua.- Gerorako utzitako antolamenduz kanpoko egoeran onartutako lanak eta erabilerak” izeneko atalean.”

* Erregimen honetan dauden eraikin zehazki irudikatuak aurkitzen dira.

4.2.2.- Gerorako utzitako antolamenduz kanpoko eraikinen zerrenda

